

**Baldintzazkoak:**

01.- Badakit hori guztia inor ohartu ere egin gabe egingo duzula, baina inork zerbait galdetuz gero, ukatu. (95-9-26)

\_\_\_\_\_ galdetuko \_\_\_\_\_

02.- Elurrik ez egotera, seguru hezur bat baino gehiago hautsiko nuela. (95-6-8)

\_\_\_\_\_ egon \_\_\_\_\_

03.- Begiradari tinko eustera bereiziko zenuke muinoa. (95-6-8)

\_\_\_\_\_ ba... \_\_\_\_\_

04.- Norbait saritu nahi izanez gero, Xabi hautatuko nuke. (94-5-7)

\_\_\_\_\_ ...kotan \_\_\_\_\_

05.- Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriz gero, oso pozik geratuko nintzateke. (94-5-7)

\_\_\_\_\_ ekarriko \_\_\_\_\_

06.- Astirik badago, joan egingo gara eta Igorri esatekoak esango dizkiogu. (92-5-16)

Astirik balego \_\_\_\_\_

07.- Negar ere egin izango nuen, baina horrek lotsa ematen zidan. (93-6-10)

\_\_\_\_\_ ba... \_\_\_\_\_

**Baldintzazkoak:**

01.- Badakit hori guztia inor ohartu ere egin gabe egingo duzula, baina inork zerbait galdetuz gero, ukatu. (95-9-26)

**Badakit hori guztia inor ohartu ere egin gabe egingo duzula, baina inork zerbait galdetuko balizu ukatu.**

02.- Elurrik ez egotera, seguru hezur bat baino gehiago hautsiko nuela. (95-6-8)

**Elurrik egon ez balitz, seguru hezur bat baino gehiago hautsiko nuela.**

03.- Begiradari tinko eustera bereiziko zenuke muinoa. (95-6-8)

**Begiradari tinko eutsiko bazeno bereiziko zenuke muinoa.**

04.- Norbait saritu nahi izanez gero, Xabi hautatuko nuke. (94-5-7)

**Norbait saritzekotan, Xabi hautatuko nuke.**

05.- Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriz gero, oso pozik geratuko nintzateke. (94-5-7)

**Oso pozik geratuko nintzateke Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriko balit.**

06.- Astirik badago, joan egingo gara eta Igorri esatekoak esango dizkiogu. (92-5-16)

**Astirik balego joan egingo ginatete eta Igorri esatekoak esango genizkioke.**

07.- Negar ere egin izango nuen, baina horrek lotsa ematen zidan. (93-6-10)

**Negar ere egin izango nuen, horrek lotsa emango ez balit. (?)**